



## Bestelako lankidetzak

# "HITZONTZI" udalekuak

Ander Zuloaga, Isidro Yoldi

*Artikulu honetan, 1995etik 2001era, 11-15 urte bitarteko gazteentzat antolatutako udalekuei buruzko hainbat jakingarri azalduko ditugu: zergatik antolatu genuen egitasmo hau, norentzat egina zegoen, nola egiten genuen eta, azkenik, zer ondorio atera genituen.*

### **Egitasmoaren nondik norakoa**

Helduen euskalduntze-alfabetatzea ohiko jarduera zuen talde batek aspalditxo sumatu zuen bere ohiko esparrutik kanpoko eskaera, derrigorrezko hezkuntzan ari ziren ikasleen gurasoen aldetik, hain zuzen. Ikasurtean zehar, ikastetxeetan, euskararen irakaskuntzan egindako lanari uda partean ere nolabaiteko jarraipena emateko nahia adierazten zuten, behin eta berriz, guraso horietako batzuek. Gainera, baldintza sozio-familiarrak batetik eta aukeratutako hezkuntza eredua (A eta B, bereziki), bestetik, derrigorrezko hezkuntzan lortzen ari ziren euskara-maila hobetzeko beharra ere sumatzen zuten.

Baina, antolatu ohi ziren udalekuetan hiru arazo nagusi aurkitzen zituzten gurasook:

- 1 Helburu nagusia aisialdiarekin lotuta zegoen: jokoak, irteerak, kirola,...
- 2 Euskara ez zen helburua; ezta askotan bitartekoa ere.
- 3 11-15 urte bitartekoentzat ez zegoen aukerarik.

Gauzak horrela, bistan zegoen zer egin behar genuen: 11-15 urte bitarteko gazteentzako udalekuak antolatu, horietan euskararen ikaskuntza eta erabilera modu natural eta atseginean uztartuko ziren.

Gure euskaltegietan, euskararen irakaskuntza ondo ezagutzen zuten irakasleak bagenituen, jakina. Gazteen aisialdian ibilitako monitore titulu-

dunak behar genituen. Eta binomioa osatu genuenean, egitasmoa antolatzeari ekin genion. Puntu hau asko azpimarratu nahi dugu, berebiziko garrantzia baitu gazteen aisialdian eskarmentu handiko irakasleak izateak. Hein handi batean, arrakastaren giltza hemen dago, eskaintzen diren zerbitzuetan bainoago.

Horrela, bada, abiatu ginen. Zazpi urtez aritu ere. Eta, egitasmoa bertan behera utzi badugu, ez da proiektuaren beharrik ez dagoelako, ezta planteamendua egokia ez delako ere. Arrazoi bakarra ekonomikoa izan da: orduantxe konturatu ginen zergatik ez zegoen horrelako eskaintzarik.

Nolanahi ere, erronka polita delako, eta gabeziak bere horretan jarraitzen duelako, geure esperientziaren berri emango dugu ondoko lerrootan.

## **Parte-hartzaileak**

### *Gaztetxoak*

Goian aipatu bezala, parte-hartzaile zuzenak 11-15 urte bitarteko gaztetxoak ziren, irakaskuntza arautuko A eta B eredukoak; D eredukorik ez genuen hartzen, horientzat bestelako udalekuak antolatzen baitziren.

Ikastetxe-motari dagokionez, gehienak ikastetxe pribatukoak ziren; eta horietako asko ikastetxe eleanitzetakoak: ingeles eta alemaniar ikastetxetakoak, hain zuzen.

Geografikoki, gehienak Gipuzkoakoak ziren (Donostiakoak batik bat). Hala ere, Bizkaia, Nafarroa eta Arabakoak ere izan genituen, informazioa eta publizitatea Euskal Herri osoan egiten baikenuen. Iparraldean egitasmoaren berri zabaldu bagenuen ere, ez zen ikaslerik etorri.

Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza eta jarrera nahikoa antzekoa zuten:

- Euskara gustuko ez zuten ikasgai bat zen.
- Ez zioten komunikaziorako baliorik ikusten.
- Kutsu ideologiko handia lotzen zioten.
- Euskal kultura arrotz zitzairen, eta folkloreakin lotzen zuten.

Udalekuetako lehenengo egunean gaztetxoek galdeketa txiki bat betezen zuten. Emaitzak honelakoxeak ohi ziren:

- Eskolatik kanpo, gehien-gehienek (%90etik gora) ez zuten euskaraz hitz egiten.
- Ez zuten euskaraz hitz egiteko beharrik sentitzen.
- Euskaraz hitz egiteak erdiak baino gehiago lotsatzen zituen.

Beste zenbait datu bitxi ere agertzen ziren:

- Euskara ikasgaia gainditzeari ez zioten lehentasunik aitortzen, bost axola zitzairen.
- Ez zuten euskararik erabiltzen, aukera edukita ere.

Zenbaitetan, euskararekiko jarrera aski kontrakoa zen, aurreiritzi eta uste oker askorekin nahasia. Gure ustez, eta haur txikienean (11-13 urte bitar-

tekoen) kasuan bereziki, jarrera horren iturburuan gurasoak edota inguru soziokulturala zeuden. Izan ere, 11 eta 12 urteko hainbat gaztetxoren ahotik entzun genituen ideiak eta planteamenduak inguru sozio-familiarrean jasoak ziren, oso zaila baita haur horiek, beren kasa, horrelako jarrera kontrakoa (eta erasokorra, hainbat kasutan ere) izatea. Asko kezkatzen gintuen horrek, oso zaila gertatzen baitzitzaigun gazte horiengan euskararekiko jarrera “neutroa” piztea (zer esanik ez, aldekoa lortzea).

Goian esandakoetatik erraz ondoriozta daitekeenez, gaztetxo gehienak gurasoek bultzatuta etortzen ziren gure udalekuetara.

### *Gurasoak*

Parte-hartzaile zuzenak ez baziren ere, gurasoak gure proiektuaren hartzaile ere baziren. Udalekua antolatzerakoan, baita bukatutakoan ere, gurasoekin genuen harreman nagusia (zenbait kasutan, udalekua marxtan zegoen bitartean ere bai).

Bistakoa den arren, azpimarratu nahi dugu gurasoek azaldutako interes eta kezka izan ezean, ezin izango genuela proiektua aurrera eramán. Aurreko atalean aipatu dugun bezala, gure udalekuetako gazteek ez zuten etxean euskal girorik, ezta euskaraz aritzeko aukera handirik ere. Nolanahi ere, gaztetxo hauen gurasoak, oro har, arduratuta zeuden beren seme-alabak euskal gizartearen partaide izan zitezen.

Alderdi hori bereziki garrantzitsua da. Izan ere, hainbat arrazoi direla medio, beren seme-alabak A eta B ereduko ikastetxeetara bidaltzen dituzten arren, guraso horiek ohartu egiten dira, bertan ikasten duten euskara-maila, eta euskal kulturaz jasotzen duten informazio-maila ere eskasak direla. Nahiz eta guraso horiek nagusiki erdaldunak izan, eta euskal kulturaren transmisiorik apenas egiten ez duten, beren seme-alabentzako ahalik eta heziketarik osoena nahi dute. Gurasoengan kontzientzia hau piztea ezinbesteko aurrebaldintza da, eta eginkizun hori euskal erakundeek dagokie bete-betean.

Horiek horrela, gurasoen lehenengo aurrebaldintza hori bete ondoren, bigarren eginkizuna ere, hein handi batean, gurasoek dagokie: seme-alabak adoretzea. Gaztetxoei egitasmo atsegin, erakargarri eta ondo antolatua eskaini behar diete; helburuak ere oso argi aurkeztu behar zaizkie. Une horretan gurekiko lehen harremana bideratzen da.

Gurasoekiko gure eginkizunak oso ondo antolatuta egon behar du. Ulertzekoa denez, gurasoak interesatuta bezain kezkatuta hurbiltzen zaizkigu; beraz, erantzun profesional eta lasaigarria eman behar diegu: egitasmoaren helburuak, bitartekoak, metodologia, elkarbizitazarako arauak,... Udalekuetako antolaketa aurrerago azalduko dugunez, ez gara orain hemen luzatuko. Soil-soilik, lehen harreman horien garrantzia azpimarratuko dugu.

Gaztetxoak udalekuan dauden bitartean, gurasoek arduradunen bidez dute seme-alaben berri. Era berean, egonaldia amaitutakoan, gurasoek, nori bere seme-alabari buruzko txostena ematen zaie, eta bertan, lorpenak eta aurrera begirako aholkuak ere eskaintzen dizkiegu. Dena den, puntu hau aurrerago zehaztuko dugu.

## Helburuak

*Udaleku baten formatuan, euskararen ezagutza eta erabilera modu naturalean eta atseginean uztartzea zen gure helburu nagusia.*

### Helburu nagusiak

Izan ere, ohiko udalekuetan aisialdiarekin lotutako jarduerak baino ez ziren antolatzen, gaztelaniaz zein euskaraz. Euskaraz burutzen ziren udalekuetan haurrek euskaraz erraz eta ondo moldatu behar zuten, eta euskara, helburua izan beharrean, bitartekoa zen. Ondorioz, A ereduko ikasle gehienek, eta B ereduko askok eta askok ere ez zuten horietan parte hartzeko aukerarik izaten. Gainera, askotan, adin-muga ere jartzen zitzairen.

Euskaltegiok antolatzen genituen barnetegietako atea ere itxita zituzten 16 urte bete arte. Beraz, hutsune nabari hori betetzera bideratu genuen gure egitasmoa.

Helburu hori lortzeko gaztetxoei hizkuntz baliabideak eskaini behar genizkien, egunean zehar egiten zituzten jarduera guztietan euskara komunikazio hizkuntz bakarra izan zedin. Uztarketa hori oharkabean eta modu atseginean egin behar genuen, haurrek etenik ez sumatzeko, kutsu akademikoa saihesteko, alegia. Horretarako erabiltzen genituen metodologia eta baliabideak aurrerago zehaztuko ditugu (*Programa, Jarduerak atalean hain zuzen*).

Bigarren helburua *euskararekiko eta euskal kulturarekiko zuten urruntasuna eta arrotasuna gainditzea* zen. Goian aipatu bezala, erdal giroan murgildurik bizi ziren gaztetxo hauek, eta euskal kulturarekiko erreferentzia gutxi eta okerrak zituzten, hainbat kasutan, gainera, lehen esan bezala, kontrako jarrera ere azaltzen zutela.

Euskal kulturaren osagarriak folklorismotik eta kutsu ideologikotik urrunduz, geure herria hobeto ezagutzeko eta geure herriko partaide sentitzeko baliabideak eskaini nahi genizkien. Horretarako, egunean zehar egiten zituzten jardueretan euskal kulturaren osagaiak gerturazten genizkien: irakurgaiak, bisitak, egun monografikoak etab.

### Zeharkako helburuak

Bi helburu nagusi horiez gain, *elkarbizitzaren* araei jarraitzea ere zeharkako helburu genuen. Hamabostaldi batez, diziplina-arau batzuk bete behar zituzten, eta ikaskideekiko harremanetan tolerantzia eta errespetua azaldu. Arlo horretan, gaztetxoei protagonismo handia ematen genien beren buruak ondo gobernatzeko: jarduera asko beraien artean antolatu behar zituzten, eta eguneroko bizitzan ardurak eta eginkizunak banatu eta hartu ere egin behar zituzten. Taldearen kohesioa bermatu behar zen, diferentziak onartuz. Arduradunek ez zuten zigortzaile izan behar, taldekide eta lagun baizik.

Zer esanik ez, gai honek buruhauste ugari ematen zigun, gaztetxo hauek, orokorrean, ez zeudelako beren burua antolatzen ohituta; gainera, konpetentzia eta lehia ziren nagusi besteekeko harremanetan, talde-lana bainoago. Berdintasun-printzipioa berenganatzea oso zaila izaten zen, berehala hasten baitziren taldekideekin alderatzen (“Nire aitak ez-dakit-zein auto dauka, eta ez-dakit-non apartamentu bat dugu”, “Bada, nireak ez-dakit-zer ogibide dauka, eta ez-dakit-zenbat diru irabazten du hilean”; “Bada, niri urtebetetzean ez-dakit-zer oparitu didate”...).

Laburbilduz, gurasoei ematen zitzaizkien orribiko argibideetan, helburu hauek aipatzen genizkien:

- HITZONTZI Udalekuko partaide sentitu.
- Euskaraz mintzatzeko kontzientzia hartu.
- Euskara komunikaziorako baliabide bezala ulertu.
- Euskal kultura ezagutu.
- Lagunartean ondo pasa.

## **Udalekuen antolaketa**

*Egonaldia egin aurretik*

Udako egonaldia bukatutakoan, txostenak eta balorazioak aztertu ondoren, hurrengo urteko udalekua antolatzeari heltzen genion. Beraz, prestaketa-lanak irailean hasten ziren.

Lehenengo eginkizuna egoitza egokia aurkitzea izaten zen. Izan ere, egoitza propiorik ezean, HITZONTZI udalekuen ezaugarrietako bat urtero kokaleku ezberdina izatea izan da. Hala, urtetik urtera parte hartzen zutenek ez zekiten hurrengo urtean non egingo zen egonaldia. Gure egitasmoak iraun zuen zazpi urteetan, zazpi egoitzatan izan gara: Artikutza (Nafarroa), Aubixa (Elgoibar - Gipuzkoa), Oianguren (Ordizia – Gipuzkoa), Artziniega (Araba), Orio (Gipuzkoa), Goizueta (Nafarroa) eta Etxalar (Nafarroa).

Egoitzak baldintza batzuk bete behar zituen:

- Inguru euskaldunean egotea.
- Azpiegitura egokia izatea (logelak, dutxak, jangelak, ikasgelak...).
- Kirol eta aisialdirako azpiegitura egokiak gertu izatea (igerilekuak, kiroldegiak...).
- Inguruan eskaintza kultural egokia izatea (bisita gidatuak, erakusketak, ibilaldiak...).

Eginkizun hori garaiz egin behar zen, aukera gehiago izateko. Gehienez, abendu-urtarrilerako hitzartuta izaten genuen egoitza.

Jarraian, bigarren fasean, informazioa zabaltzen genuen. Horretarako, ikastetxeetara, gazteentzako informazio-zerbitzuetara, eta hainbat erakunde ofizialetara bidaltzen genuen gure informazioa. Euskarri egokiak erabiltzen ahalegintzen ginen (orribiko txukunak, aurreko ekitaldietako laburpenak, gutunak,...). Eginkizun horretarako hainbat erakundek dirulaguntza eskaini zigun.

Aurreko informazio orokorra bidaltzeaz gain, azken udalekuan egondako gazte eta gurasoei bidalketa berezia egiten genien: norberarentzako gutuna, eskaintza ekonomiko hobea, eta azken udalekuan filmatutako bideoaren kopia bana.

Komunikabideetan ere iragarkiak txertatzen genituen. Horretarako, Euskal Herri osoko hedabideak erabiltzen genituen. Aipatu behar da atal hori oso garestia izaten zela, eta askotan ez ginela iristen nahi genituen toki guztietara.

Martxo-apirilean zabaltzen zen izena emateko epea. Euskaltegi bateko egoitza erabiltzen genuen eginkizun horretarako: ordutegi jakin batean arduradun batek jasoko zituen deiak eta gurasoen bisitak. Informazio-bulego honetan informazio zehatzagoa emateaz gain, gurasoen beldurrak eta kezkek uxatzea zen eginkizun nagusia: konfiantza ematea, alegia.

Matrikulatzen ziren gaztetxoek fitxa bana betetzen zuten. Bertan, norberaren datuak, argazkia, hezkuntza-eredua, ikastetxean erabilitako testuliburuak eta bestelako jakingarriak biltzen genituen. Informazioa hori monitoreek erabiltzen zuten udalekuetako taldeak osatzeko; gainera, udalekuaren lehen egunean betetako galdeketatik ere hainbat datu ateratzen zituzten talde homogeneoak antolatu ahal izateko.

Izena ematen zuten gaztetxoen gurasoei ondoko informazioa bidaltzen genien postaz:

- Udalekua non egingo genuen: egoitzaren argazkiak, kokapena, inguruko baliabideak,...
- Egonaldiaren egitarau zehatza.
- Haurrek eraman behar zituzten gauzen zerrenda.
- Egonaldiak irauten zuen bitartean bete behar ziren arauak (gazteentzat zein gurasoentzat).
- Udalekua hasi aurretik egingo zen bilera orokorraren deia

Udalekua hasi baino bi aste lehenago (ekainaren erdialdean, alegia), bilera orokorra egiten genuen. Bilera honen helburu nagusia, informazioa ematea baino gehiago, denok elkar ezagutzea zen. Oso bilera garrantzitsua zen, eta dena deno lotuta eramaten genuen. Egoitza egokia aukeratzeko genien: areto handia, eroso, megafoniaz hornitua, gurasoentzat ezaguna,...

Bilera horretara udalekuko arduradunak, monitoreak, irakasleak, gaztetxoak eta gurasoak bertaratzen ziren. Denek jakin-min handia zuten gainontzeko partaideak ezagutzeko, ordura arteko harremanak banan-banakakoak izaten baitziren. Bileran ondoko gaiak azaltzen genituen:

- Udalekuen helburuak.
- Programazioak, jarduerak, bisitak...
- Funtzionamendu-arauak.
- Aseguruak eta osasun-zerbitzuak.
- Gurasoen galderak.

Egonaldiaren funtzionamendu-arauak bi multzotan banatzen genituen: gaztetxoentzako arauak batetik (aurrerago zehaztuko ditugu), eta gurasoentzakoak, bestetik. Gurasoei ez zitzaion onartzen seme-alabei bisitarik egitea, udalekuko giroan interferentzia, eta haurrentzat faktore deserosoa izan zitezkeelako. Era berean, pisuzko arrazoia izan ezean, ez genien uzten seme-alabei telefono-deirik egiten. Harremanak monitore eta arduradunen bidez egin behar ziren.

Bestetik, udalekuetan erabiltzeko seme-alaba bakoitzari gehienez 5.000 pezeta emateko eskatzen genien. Diru hori udalekuaren hasieran gazte bakoitzak monitore arduradunari eman behar izaten zion, eta horrek kudeatu. Horrela, gaztetxoek arteko berdintasunaren printzipioa indartu nahi izaten genuen.

Gurasoen kezka nagusia udalekuko barne-diziplina izaten zen: beldur ziren seme-alabek zer egingo ote zuten beraiek gabe. Honelakoetan, “guraso konplizeek” asko laguntzen ziguten: horiek aurreko urteetan gurekin izandako haurren gurasoak ziren, eta beste gurasoak lasaitzeaz arduratzen ziren.

Beraz, gurasoak lasaitu ondoren, dena prest zegoen udalekuari berari heltzeko. Dena den, udalekua hasi aurretik beste eginkizun garrantzitsu bat ere bagenuen: programazioak eta jarduerak antolatzea. Puntu hori aurrerago zehaztuko dugun arren, orain aipatuko dugu gai hori monitore arduradunaren egitekoa zela udalekua hasi aurretiko hilabetean (ekainean, alegia).

#### *Egonaldiaren antolaketa*

11-15 urteko haurren artean oso alde handia dagoenez, udalekuak bi txandatan antolatzen genituen: 11, 12 eta 13 urtekoak uztaileko lehenengo hamabostaldian; 14 eta 15 urtekoak, bigarrenean.

Gaztetxoak 10eko taldetan banatzen genituen, eta talde bakoitzak monitore bat zeukan arduradun. Beste monitore bat libre geratzen zen arratsaldeko jarduerak eta tailerrak antolatzeko. Txandaka egiten zuten hori, egunero monitore bat libre gera zedin. Beraz, udalekuko txanda bakoitzeko eginkizun-banaketa honelakoa zen:

#### *Udalekuko arduraduna:*

- Udalekuaren programazioak eta jarduerak antolatu behar zituen aurreko hilabetean (ekainean).
- Gainontzeko monitore-irakasleen lana koordinatu behar zuen.
- Sukaldarien lana gainbegiratu.
- Egoitzaren mantenuaz arduratu.
- Gurasoekiko harremanak bideratu.

#### *Irakasle-monitoreak:*

- Goizeko jarduera akademikoak.
- Arratsaldeko jarduerak eta tailerrak.
- Gaueko afalondokoak.
- Zegozkien taldeen ardura eta jarraipena.
- Egonaldiaren bukaeran, txostenak egin.

Harrera-egunean, gurasoak agurtu ondoren eta autobusez udalekura iritsi bezain azkar, aurkezpenak egiten ziren. Izena ematerakoan betetako fitxari esker monitoreek gaztetxoen berri bazuten ere, orduantxe zuten lehen harremana. Gaztetxoei udalekuaren funtzionamendua azaltzen zitzaien:

- Helburuak.
- Egunaren antolaketa eta ordutegiak.
- Jarduerak azaldu: eskolak, tailerrak, bisitak, jokoak,...
- Barne-araudia.

Azken puntu honek garrantzi handia zuen eta, besteak beste, honakoak biltzen zituen:

- Ordutegiak errespetatzea (gauekoak, batez ere).
- Garbiketa zaintzea: norberarena, etxekoa eta ingurukoa).
- Etxeko eginkizunetan laguntzea.
- Baliabideak errespetatzea.

Aipatu behar da eguneroko lanetan, txandaka, denek zeukatela arduraren bat edo beste: mahaia prestatu eta jaso, etxeko garbiketa, logelak txukundu,...

Jarraian, galdeketa txiki bat (euskararekiko jarrera, motibazioa, erabile-ra,...), eta mailaketa-proba egiten zitzaizkien. Datu horien arabera, gaztetxoak taldeka banatzen ziren, eta talde bakoitzari izen bereizgarria ematen zioten. Dena prest zegoen egonaldia hasteko.

### **Programa, jarduerak**

Goizean, 8:30etan jaiki, gosalduta, eta 9:30etan hasten ziren saioak. Ikasleek, mailaren arabera taldekaturik, euskara-eskolak jasotzen zituzten lehenengo ordu eta erdian.

Saio horien programazioak prestatzeko, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako Oinarrizko Kurrikuluak jasotzen dituen helburuak, metodologia eta bitartekoak baliatzen genituen. Saiotetan erabiliko zituzten testuak, ariketak, jokoak eta abar biltzen zituen liburuxka bana ematen zitzaien. Horrez gain, talde bakoitzak liburu bana irakurtzen zuen. Oso garrantzitsua zen saio horiei kutsu akademikoa arintzea eta, horretarako, funtzio komunikatiboak modu naturalean eta arinean lantzen ahalegintzen ginen.

Atsedenditxoa egin ondoren, goizeko saioen bigarren zatian, askoz eginkizun atseginago eta entretenigarriagoak egiten genituen: arratsaldeko tailerrak prestatu, afalondokoetarako ipuinak eta abestiak ikasi, bisitetarako gidioak egin,.... Modu horretan, goizean ikasitakoa arratsalde eta gauean praktikan jartzen zuten. Goizeko saioetako beste eginkizun bat egunkaria prestatzea zen. Egunkari hori etxera eramango zuten, eta talde bakoitzak atal bat osatzen zuen.

Bazkaldu ostean, etxetik kanpo antolatzen genituen arratsaldeko saioak: ingurugiroa ezagutu (zuhaitzak, hostoak bildu, landareak,...), herria eza-



gutu, nekazarien bizimodua ezagutu (baserritarrekin hitz egin, baserriko lanak ikusi, abereak, barazkiak, ohiturak,...), bisita gidatuak egin (museo etnografikoak, baselizak, burdinolak, errotak,...).

Hainbat egunetan, autobusa hartu eta egun osoko irteerak antolatzen genituen: Zugarramurdiko leize-zuloak (akelarreak, mitoak,...), Gernika (Juntetxea, Arbola...), Urdaibaiko naturgunea (animaliak, landareak...), Urederra ibaiaren iturburua...

Eguraldiak laguntzen ez zuenean, ordea, udalekuan bertan tailerrak antolatzen genituen: buztina, papera, ogia egiten ikasi, mozorroak egin...

Eta jokoak, noski. Kirol ezberdinak (pilota, futbola, bizikleta...), igerilekuak, zaldiz ibili, altxorraren bila...

Gauean, afalostean, lotara aurreko jardueren txanda iristen zen. Goizean prestaturiko jokoak, antzezlanak, abestiak eta ipuinak denon aurrean egiten genituen. Gauak laguntzen zuenean, etxetik kanpo egiten ziren saio horiek.

Egonaldian zehar egun monografikoak ere antolatzen genituen. Egun horietako saioek bi helburu zituzten: batetik, egun osoko jarduna gai baten inguruan antolatzea; eta, bestetik, gai jakin batzuk lantzea. Horrela, hauek izaten ziren egun horietako gaiak: euskal mitologiaren eguna, olinpiaden eguna, naturaren eguna, euskal jaien eguna,...

### *Haurren jarrera eta motibazioa*

Aipatu dugun bezala, euskararekiko eta euskal kulturarekiko urruntasunaz gain, zenbaitetan jarrera ezkorra ere agertzen zuten gaztetxo hauek. Hori zela eta, hasierako egunetako lana erabakigarria izaten zen: euskara komunikatzeko eta elkarbizitzarako tresna baliagarria zela ulertu behar zuten. Erakutsi behar zitzairen edozein unetan eta eginkizunetan ere euskara erabiltzeko gai zirela. Eta horretarako tresnak eskaini behar genizkien.

Euskara erabiltzeko motibazioa, modu naturalean eta oharkabean, piztu behar genuen. Egun osoko eginkizun guztietan euskarak lokarria izan behar zuen. Goizeko eskola-saioretatik arratsaldeko jardunetarako jauzia oharkabean egitea zen erronka. Gainera, egun osoan ere euskara besterik ez zuten entzuten: otordu bakoitzaren hasieran abesti jakin bat abesten zuten, etxeko kartelak eta mezuak euskaraz irakurtzen zituzten, monitorean errietak euskaraz entzuten zituzten, sukaldariak euskaldunak ziren, herriko dendan litxarrerriak erosten zituztenean dendaria euskalduna zen, baita herriko gaztetxoak ere,...

Nolanahi ere, bestelako “neurriak” ere erabiltzen genituen: egunero, denen begien bistan zegoen grafiko batean, gaztetxo bakoitzaren euskararen erabilera neurtzen genuen. Oso garrantzitsua zen besteen aurrerapena ikustea, adore gutxi zutenak suspertzeko. Egonaldiaren bukaeran, udalekuaren oroigarri batekin batera, gurasoei grafiko pertsonalizatu hau ematen zitzairen, eta haurrak, horren jakitun, gehiago ahalegintzen ziren.

Egonaldiaren hasieran ohitura aldaketa hau asko kostatzen bazitzairen ere, oso azkar, ezari-ezarian, hasten ziren euskara erabiltzen. Jarreraren aldaketa ere bide beretik zihoan: euskararen “mamua” desagertuz zihoan eta, bere ordeaz, euskara eta euskal kultura deskubritzen zuten: hurbila eta bizia.

## **Emaitzak eta ondorioak**

Emaitzak baloratzerakoan, udalekuen helburuak hartuko ditugu kontuan:

- *Euskararen ikaskuntza eta erabilera modu natural eta atseginean uztertzea.*–

Hizkuntzaren ezagutza-maila asko aldatzen ez bazen ere (15 egunetan ezin baita gauza berri askorik ikasi), euskararen erabilera oso modu nabarmenean handitzen zen. Lehendik ikasitakoa modu praktikoan erabiltzen zuten eguneko eginkizun guztietan, goizean hasi eta lotara arte. Gainera, euskara lokarri naturala zen; ez zuten soilik eginkizun zehatz batzuekin erlazionatzen.

- *Euskal kulturarekiko arrotasuna gainditzea.*–

Hizkuntza eta kultura bizi bat deskubritzen zuten. Beren ohiko inguruan gauza urruna eta ezezaguna zena modu naturalean agertzen zitzairen. Lehendik zeuzkaten aurreiritzi eta uste oker asko aldatzen ziren, eta euskara modu naturalean erabil daitekeela ikusten zuten. Euskal kultura eta ohiturak folklorismotik urrundu, eta eguneroko bizimoduarekin lotuta aurkitzen zituzten.

Zeharkakoa bazen ere, elkarbizitzaren arauak errespetatzea ere helburua zen. Hamabostaldian zehar berdintasuna, elkarrenganako tolerantzia eta errespetua bete beharreko printzipioak ziren, eta horretan ahalegintzen ginen denok. Nolanahi ere, printzipio horiek eguneroko bizimoduan ere landu behar dira, eta eginkizun horretan familia, eskola eta gizartea, oro har, izango dira bidegile.

Amaitzeko esango dugu HITZONTZI udalekuak oso esperientzia aberasgarria izan direla. Baita neketsua eta gogorra ere. Nolanahi ere, hasieran esan dugunez, oso erronka polita da, eta elkarte eta erakundeak adoretu nahi ditugu ahalegin horretan partaide izatera; merezi du-eta.